



## **INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, AIAKO KIROL ETA KULTUR ZONALDEAREN PLAN BEREZIARI DAGOKION INGURUMENAREN GAINENKO ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUARI BURUZKO ERREFERENTZIAKO TXOSTENA EMATEKO**

### **1. AURREKARIAK**

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen Lege Orokorrak, 41. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta halaber 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duenak, 3. artikuluan ezarritakoa betez, plan bereziei, lur-eremu hiritarrezinean eragina dutenean, beharrezkoa den ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura ezarri beharko zaie ezinbestez. Aipatutako dekretuaren 6. artikuluan xedatzen denaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana egiteko, prozedura hori bete beharreko planetakoren bat gauzatu nahi dutenek kontsulta egin ahal izango dute eskumena duen ingurumen-organon, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean jaso behar den informazioaren zabalerari eta zehaztasunari buruz.

Era berean, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak plan bereziak hartzen ditu bere ezarpen-eremuaren barruan. Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ingurumeneko organoak ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren irismena eta xehetasunaren nahiz espezifikotasunaren maila zehaztuko ditu erreferentziako agiri baten bidez, eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatu eta haiei kontsulta egin eta gero. Agiri horretan jasota egongo dira, halaber, ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuen adierazleak, eta baita egoera bakoitzean ezartzekoak diren iraunkortasunaren printzipioak ere.

2011ko apirilaren 5ean erregistroan sartu zen idatzi baten bidez, Aiako Udalak esku hartze areen dokumentazio grafikoa eta ECIAren memoria-laburpena bidali zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuari, dagokion erreferentziako dokumentazioa eskuratze aldera.

Plan Berezia Aiako bi zonaldeetan kokatzen da: Lehena, Aiako hirigunearen iparraldera dagoen muino batean; eta bestea, Elkanon auzoaren erdigunearen inguruan. Plan horretan jasotzen diren elementu nagusiak hauek dira:

- Lehen eremuan, eraikin erdi lurperatu bat eraiki nahi da, 200 m<sup>2</sup>-koa, Altxerriko kobazuloekin zerikusia duen kultur ekipamendu bat kokatzeko. Orobat, oinezkoentzako bide bat egingo da, Aian hasi eta Aian amaitzen dena, eraikin horretara joateko. Ibilbidea hormigoizko bide batetik joango da zati batean, eta gainerakoa zenbait landa-lurzatiren mugetatik. Bide horretan bertan barrena joango da energia elektrikoa eta ura eramateko instalazioa.
- Bigarren eremuan kirol erabilerrako eta kultura-gastronomiako ekipamenduak aurreikusten dira. Frontoi bat ere izango da, eta aparkamendu bat Elkanoko auzoaren erdigunearen ondoan, 1.805 m<sup>2</sup>-ko lurrazalean. Eraikina erdi lurperatuta egongo da, bertako maldaz baliatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak du Aiako Kirol eta Kultur Zonaldearen Plan Berezia behin betiko onartzeko benetako eskumena, eta, honenbestez, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 44. artikuluan ezarritakoa betez, eta Garapen Iraunkorreko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuaren 11.2.1. c) artikuluekin bat etorrira, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honi dagokio plan eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuan kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko ebazpenak ematea.



Eskaera jaso eta gero, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak hasiera eman zion eragindako administrazioak eta publiko interesduna identifikatzeko eta horiei kontsulta egiteko izapideari, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Txosten hau da, hain zuzen ere, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluan aipatzen den erreferentziako agiria, eta erantzuna ematen dio uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, Ingurumenaren gaineko Eragina ebaluatzeko Baterako Azterketaren Prozedura arautzen duenak, 6. artikuluan aurreikusitako kontsulta-izapideari.

## **2. EGINDAKO KONTSULTAK**

Apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzkoak, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eragindako administrazio eta erakunde hauek identifikatu eta kontsultatu dira:

- GFAko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza
- GFAko Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- GFAko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
- GFAko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- Urola Kostako Udal Elkarteak
- IHOBE
- Uraren Euskal Agentzia
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzi Elkarteak
- Urkome
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)

Txostenak emateko ezarritako epea igaro eta gero, administrazio edo erakunde hauen erantzunak jaso ditugu: Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, eta IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Txostenen kopiak gehitu ditugu, aurreiazko txosten honetako eranskin moduan.

**Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa** dio Plan Bereziaren jarduketa zonaldea erakunde horren eskumenetik kanpoko eremu geografiko batean dagoela.

**Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak** Plan Bereziarekin desadostasunik ez duela adierazi du.



Kultura Ondareko Zuzendaritzak jakitera eman du ezin dela zehaztu kultura ondarearen gaineko afekziorik gertatzen ote den, dokumentuak ez duelako zehazten zein diren jarduketaren zonaldearen mugak (bereziki Elkanoko eremuan, han arkeologia ondareari eragiteko arriskua baitago). Ondorioz, dio azterketak afekzioa jasan dezaketen elementuak jaso beharko lituzkeela eta, legeak agintzen duenari jarraikiz, neurri babesleak eta zuzentzaileak ekarri beharko lituzkeela.

**Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak** Plan Bereziaren sartu beharreko ingurumen-irizpide estrategikoak eman ditu, eta baita Plana prestatzean kontuan hartu behar diren planen zerrenda ere.

Azkenik, **IHOBE SAK** jakinarazi du esku hartu beharreko alderdian ez dagoela Lurzorua kutsa dezaketen Jarduerak edo Instalazioak izan dituzten edo dauzkaten Lurzoruen Inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan jasotako lursailik.

Erreferentziako agiri hau eman eta gero erantzunen bat jasoz gero, Aiako Udalarari igorriko zaio ahal den eperik laburrenean, Plan Bereziaren idazketa eta Ingurumenaren gaineko Eragina ebaluatzeko Baterako Azterlana egitean aintzakotzat har dadin.

### **3. INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK**

Plan Bereziaren aintzat hartzen diren ingurumen irizpideek bateragarriak izan behar dute 2002-2020ko Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian ezarritakoarekin, 2007-2010ko eta eginbidean den 2011-2014ko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ingurumen Programa markoekin, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrearekin, Legearen Testu Bategina onartzen duen 2008ko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzaldiko Errege Dekretuarekin eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 3. artikuluekin; eta irizpide horiek gauzatuko dira, plan bereziaren eremua eta helburuak kontuan hartuta, ingurumen irizpide estrategiko hauekin:

- Dagoeneko artifizialduta dauden lurzoruen eta eraikita dauden eraikinen erabilerari lehentasuna ematea eta hiritartzeko lurzoruen trinkotze minimoa bermatzea, lurzoru naturalen eta nekazaritzako lurzoruen galera gutxienekora murrizteko eta lurzoruen zigilatzea eta iragazgaiztea saihesteko.
- Plan Bereziaren esparruko "lur-eremu hiritarrezinaren" izaera mantentzea, "hiri-elementu" gehiegi, hala nola altzariak eta argiztapena, ezartzea saihestuta.
- Paisaia planeamenduan txertatuko da; eta, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatuko da.
- Landaredia zaintzea, bereziki basoak, landare taldeak eta landare-hesiak.
- Eraikin berrietan eta espazio libreetan, irizpide hauek ezartzea: eraikigarritasun iraunkorra, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien sustapena.

### **4. PLAN BEREZIAREN ESPARRUAN DAUDEN ETA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI BEREZIA DUTEN BALIABIDEAK ETA EREMUAK, ETA BABESTEKO HELBURUAK**

Baterako Ebaluazioaren Azterketaren Laburpen Memoriaren azken ingurumen inbentarioa berrikusita, eta kontuan izanda egin beharreko jarduketaren deskripzioak ez duela zehaztaperen maila handirik oraingo, ez dagoela informazio gehiago ematerik errekurtsioei eta Plan Bereziaren afekzio eremuetako ingurumen interes bereziko espazioei dagokienez.



Bestalde, Laburpen Memorian sartutako inbentariari dagokionez, baieztatu egin behar da badela benetan, eragindako eremuetan, mehatxuan dagoen flora, zeina Ingurumen Ministerioak egindako espezie inbentarioan agertzen baita. Izan ere, nahiko lan han horrelakorik izatea: *Galiuma renarium* kostalde hondarretan izaten da, eta horrelakori ez dago Elkanon; eta *Carpinus betulus*, berriz, mehatxuan dauden espezieen euskal katalogoak dioenez, Alegian baino ez dago.

## **5. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA EBALUATZEKO BATERAKO AZTERLANAREN EDUKIA ETA NONDIK NORAKOA**

Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterlanak zer eduki izan behar duen zehaztuta dago Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean. Era berean, Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterlanean jaso beharko da apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzkoak, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenei dagokienez, l. eranskinean aurreikusitakoa.

Beraz, Aiako Kirol eta Kultur zonaldeko Plan Bereziari dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlanean jasota egongo dira aipatutako arauak eskatzen dituzten edukiak, eta jarraian azalduko dugun eskema garatu beharko da bertan:

### **5.1.– Planaren edo programaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko aintzat hartutako hautabideak azaltzea.**

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazioak, puntu honetan, Plan berezian planteatutako irizpide eta helburu zehatzak azaldu beharko ditu, bai orokorrak eta baita zehatz-mehatz ingurumenarekin lotuta daudenak ere. Gainera, irizpide eta helburu horiek, honako erreferentziako agiri honen 3. eta 4. apartatuetan aipatu diren iraunkortasunerako hala nola ingurumena babesteko eta hobetzeko irizpide eta helburu orokorrekin bateragarriak diren ala ez aztertu beharko du.

Erdietsi nahi diren helburuak beste hautabide batzuei jarraituz lor badaitezke, apartatu honetan aurretiazko izaeraz eta modu laburrean aurkeztuko dira, gero azterlan zehatzago bat egitekotan. Eta azterketa xehatu hori, honako txosten honen 5.4 apartatuan zehaztutakoari jarraituz egingo da.

### **5.2.– Beste plan edo programa batzuekiko elkarrekintzak aztertzea.**

Aiako lurzoru hiritarrezinaren antolaketarekin zerikusia duten plan eta programak identifikatu egingo dira. Aintzat hartuko dira, gutxienez, honako hauek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Artezpideak (LAA)
- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Jardute Eremuko Lurraldearen Zatikoa
- EAEko Nekazaritza eta basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala
- Aiako Tokiko 21 Agendako Jarduketa Plana
- Aiako Hiri Antolaketako Arauen testu bateratua eta Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa
- Garapen Iraunkorrekoko Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- Ingurumen Programa Markoa 2007-2010 eta Ingurumen Programa Markoaren Zirriborroa 2011-2014
- Korridore ekologikoen sarea
- Mehatxupeko Espezieen Kudeaketa Planak
- Aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko euskal plana (2008-2012).
- Gipuzkoako ura era iraunkorrean erabiltzeko artezpideak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorrekoko 2007-2013 Programa.



### **5.3.– Planaren eraginpeko eremua aztertu, diagnostikatu eta baloratzea.**

Plan Bereziak eragindako alderdien ingurumen ezaugarriak deskribatuko dira, inguruneko elementu guztien kontserbazio egoera bezalaxe. Hori horrela, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, bere eranskinaren 3. atalean ezarritako edukiak garatuko dira. Horretarako, Hiri Antolaketako Arauak izapidetzeko xedez idatzitako ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko bildutako informazioa erabili ahal izango da. Dena den, informazio hori plan honen egoerara moldatu beharko da, eta arreta berezia jarriko zaie aldatutako alderdiak direla-eta, lurzoru hiritarrezinean nabarmenak izan daitezkeen alderdiei.

Aipatutako azterlanean gehituko da 183/2003 Dekretuaren eranskineko 9. atalean jasotako dokumentazio grafiko eguneratua, eta horrez gain, iraunkortasunari buruzko txostenari dagokionez, bete beharrekoa izango da ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea garatzen duen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Larrialdiko Neurriak arautzen dituenak, 31. artikuluan ezarritakoa, hau da:

- Antolaketaren barruko eremuan dauden arrisku naturalen mapa bat jasoko da bertan.
- Horrekin batera, eta planean adierazitako aurreikuspenetan oinarrituta, lurzoru horiek duten harrera-ahalmenari buruzko azterketa egingo da, txosten hauek kontuan hartuta:
  - Administrazio hidraulikoaren txostena, eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur-baliabideak badauden eta uraren herri-jabarigunearen babesaren egoera zein den jakiteko.
  - Errepideen eta lehendik dauden gainerako azpiegituren alorrean eskumena duten administrazioen txostena, planaren barruko aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa.

### **5.4.– Teknikoki arrazoizkoak diren hautabideak ingurumen aldetik aztertzea. Hautatutako irtenbidearen justifikazioa**

Diputatuen Kontseiluak 2009ko maiatzaren 26 onartutako Aiako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateratuaren 85. artikulua dioenez, lehenengo aukera, landa lurrean ezartzeko diren interes publikoko eraikin eta instalazioentzat, jada badiren eraikinetan ezartzea da. Bi eremuetan aukera hori aztertuko da, “0 aukera” deituko dioguna. Aurrekoa ezin balitz, eta nahiz eta kontsultetarako agirian ez diren kirol eta kultur zonaldeak kokatzeko hautabideak planteatu, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiterakoan, planta hori ezartzeko kokagune bat baino gehiago hartu beharko dira kontuan; eta kokaleku posible horiek, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta nahiz egokitasun irizpideei jarraituz baloratuko dira. Interes publikoko ekipamendu horien aztertutako kokaleku batzuetan eta besteetan ezartzeak eragin ditzakeen inpakturik nagusienak alderatuko dira, betiere txosten honen hurrengo apartatuan zehaztuko denarekin bat etorritik.

Hautatzen den kokapena egokitasunez eta arrazoi tekniko eta ingurumenekoez zurrututa, hautatutako eremuetako ekipamenduen barneko antolaketa aukerak eta tipologia ezaugarriak aztertuko dira ingurumen eraginaren arabera, betiere bakoitzak eragiten dituen ingurumen eragin balizkoen artean alde handiak baleude. Azken horri dagokionez, eta aurretiazko kontsulten dokumentuan emandako informazioa urria izanik ere, ematen du Elkanorako proposatzen den ekipamenduak ez dituela betetzen okupazio eta gehieneko altueraren parametroak, zeinak Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateratuaren 85. artikulua ezartzen baititu.

Azkenik, behin betirako erabakitzen diren irtenbideak justifikatu egin beharko dira. Gainera, irtenbide horiek txosten honen 3. eta 4. apartatuetan aipatu diren ingurumenaren iraunkortasun eta babeserako irizpide eta helburu orokorrekin izan lezaketen bateragarritasuna baloratuko da.



Lurzoru hiritarrezinerako afekzio premia justifikatzen duten arrazoi sendoak eman beharko dira; hau da, aurreikusitako jarduerak lehendik lurzoru hiritargarria den sailean edo sailkapen horretan sartutako lurretan garatzea ezinezkoa dela arrazoitu beharko da.

### **5.5.– Proposatutako jarduketan eraginak identifikatzea eta baloratzea**

Plan Berezian planteatutako jarduerak paisaian, nekazaritzan eragin, bioaniztasunean ditzaketen ingurumen eraginak identifikatu eta baloratuko dira. Ildo horretan, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioko memoria laburpenean eta txosten honetako 4 apartatuan aipatutako funtsezko elementuekin bat etorriz, honako alderdi hauek arreta osoz aztertu beharko dira besteak beste:

- a) Paisaiak jasango duen eragina. Ingurumen eraginaren baterako ebaluazioak, Plan Berezian ondoriozko jarduerak paisaian eragingo duten inpaktuaren azterketa xehatua jaso beharko du; batez ere, eraikinek begien bistara eragingo duten inpaktua. Eraikin horiek ikusgarri egongo den eremu osoan izango duten begietarako eragina aztertuko da, bai kokatzeko eta bai diseinatzeko dauden hautabide guztien arabera.
- b) Lurzoruen eta nekazaritzaren gaineko eragina. Baloratzeko, kontuan izango da Gida metodologikoa (Nekazaritza eta Basozaintzako LAPeko V. Kapituluak, 14. epigrafea, behin-behinekoz onartua 2010eko azaroaren 8ko Aginduz).
- c) Kultura ondarearen gaineko eragina: Hirigintza Ondarearen Katalogoan sartuta dauden elementuen gaineko eragina aztertuko da.
- d) Lur mugimenduak: azterlan horretan, Plan Berezian aurreikusitako jarduerak gauzatzeko egin beharko diren lurketen zenbatespen bat jasoko da, eta material soberakinak kudeatzeko aurreikusi den sistema deskribatuko da, halakorik izanez gero behintzat.

Ingurumen eraginak 183/2003 Dekretuaren Eranskinetako 5.2.2 apartatuan zehaztutakoaren arabera egituratu ahal izango dira, eragin horiek aurreikusi eta identifikatu ahal izateko.

Identifikatutako inpaktu bakoitza, dagokion magnitudean eta intentsitatean zehaztu eta baloratu beharko da, ingurumen eragina baloratzeari buruzko errege dekretuak, 1988ko irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak, I. eranskinen adierazitako terminologia erabiliz. Horretarako, alde aurretik, eraginaren adierazleak definitu behar dira (esanguratsuak, garrantzizkoak, baztertzaileak, koantifikagarriak eta erraz identifika daitezkeenak). Adierazle horiek behar bezala deskribatu behar dituzte bai eragingo den afekzioa eta baita inpaktuarekiko onar daitezkeen gutxieneko mugak ezarriko dituzten ingurumen kalitatearen helburuak ere. Horretarako, indarrean dagoen legeria eta kasuan-kasuan eskumena duten organoek emandako jarraibideak hartuko dira erreferentzia gisa.

Antzemandako inpaktuen garrantzia zehazteko, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen II. eranskinen ezarritakoari jarraituko zaio, proiektuen ingurumen eragina ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2008ko urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinen xedatutakoari bezalaxe.

### **5.6.– Babes, zuzenketa eta konpentsazio neurrien proposamena.**

183/2003 Dekretuaren eranskinetako 6. apartatuan xedatutakoari jarraituz, Plan Berezian aurreikusitako jardueren ondorioz gerta litezkeen ingurumen eraginak murrizteko edo konpentsatzeko beharrezkoak diren neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak hartu beharko dira. Gainera, obrek dirauten bitartean ingurumen eraginak murrizteko neurriak zehaztu beharko dira.

Hasierako onespenerako agirian jasotako jarduera eta zehaztapen bakoitzeko, bidezko neurri zuzentzaileak zehaztuko dira; eta neurri horiek, gutxienez, honakoa izango dute helburu:



- Nekazaritza arloko produktibitatearen ikuspegitik begiratuta oso baliotsuak diren lurren galera murriztea.
- Jarduerak Komunitate intereseko habitat eta espezie babestuingan izan lezaketen afekzioa minimizatzea.
- Katalogatutako hirigintza ondarearen gaineko eragina saihestea.
- Paisaia babestea, degradaturiko eremuak edota jarduerak ukitutako eremuak leheneratuz, eta egingo diren eraikin eta azpiegiturak paisaian txertatuz. Hori horrela, aurreikusitako hirigintza jarduerak begietara eragingo duten inpaktua aztertu ondoren, instalazioak paisaian txertatzeko egokienak diren neurriak aplikatuko dira, bai esparruaren barne antolaketarako (eraikinen eta instalazioen antolara) irizpideei dagokienez, baita hirigintzaren eta eraikinen diseinuari dagokionez ere (materialak, koloreak, morfologia, altuera eta bolumenak; lurraldean argi kutsadurarik eragingo ez duen moduko argiteria eraginkorra, kanpoaldean). Era berean, inguruneke paisaiaren kalitatea mantentzeko beharrezkoak diren ezkutatzeko-neurriak hartuko dira (erabili beharreko landare espezieak, landaketan altuera eta dentsitatea, eta abar).
- Espezie harrotzen hedapena ekiditea.
- Ur kontsumoa mugatzea, eta hondakin urak biltzeko eta tratatzeko sistema egokiak ezartzea.
- Eremua hiritartu eta eraikitzerakoan, eragimen energetikoa sustatzeko eta natur baliabideak (energia, ura eta abar) aurrezteko irizpideei jarraitzea. Hori horrela:
  - Ahal dela, hiritartzeko orduan, zolatu daitezkeen eta iragazkorak ez diren alderdiak mugatuko dira, lurraren iragazpen-ahalmen naturala mantendu ahal izateko. Oinezkoentzako espazioetan eta ibilgailuetarako bideetan, euriarekiko iragazkorak diren materialak erabiltzea proposatuko da.
  - Kontsumo gutxiko argiztapen sistemak erabiliko dira, argi-kutsadurarik eragiten ez dutenak.
  - Egingo diren eraikin berrien orientazioa zehazterakoan aintzat hartuko da alorraren eguzkia hartzeko eragimena, alde batetik bere portaera energetikoa hobetzeko (batez beste tenperatura altuagoa, berokuntza kontsumo txikiagoa eta abar) eta bestetik, eguzkiaren argia hobeto aprobetxatzeko (argindar kontsumo txikiagoa).
  - Eraikuntzan, ahal dela behintzat, isolamendu termiko eta akustikorik handieneko materialak erabiliko dira, ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak.
- Ukitutako baliabideak leheneratzeko neurriak proposatuko dira, bidezko neurri konpentsagarriak ezarri; esate baterako:
  - Gaur egun iragazkorak diren azalerak eremu natural bihurtzea, hiritartze lanak gauzatzen diren bitartean sortzen diren eremu iragazkorak konpentsatzeko.
  - Degradatutako eremuak berreskuratzeko neurriak hartzea, Plan Bereziaren ondorioz kaltetuko diren garrantzizko habitaten konpentsazio gisa.

Neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzaileak definitzean, kontuan izango dira Hiri Antolaketako Arauen ingurumen eraginaren baterako ebaluazioan planteatutakoak, betiere Plan Berezi honen mailaketara moldatuak.

## 5.7.– Planaren eraginak ikuskatzeko programa



Azterketak, Plan Bereziaren ondorioak ikuskatzeko programa bat jaso beharko du, eta programa horren helburua izango da ingurumenaren kalitatea zainduko dela bermatzea, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazioan proposatutako neurri babesgarriak eta konpentsagarriak beteko direla ziurtatzea.

Hori horrela, jarraitu beharreko ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatu beharko dira eta, era berean, jarraipen horretarako ezarriko diren adierazleak finkatu eta erabiliko den metodologia zehaztuko da (datuak hartzeko estrategiak, gehieneko edo erreferentziako mailak, maiztasuna, langileria, aurrekontua, aldizkako txostenak egiteko era, eta abar). Hau da, identifikatutako inpakturik esanguratsuenetako bakoitzaren jarraipena egiteko aukera ziurtatuko da, eta baita proposatutako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarrien betetze-mailaren eta neurri horien eraginkortasunaren jarraipena egiteko ere.

Baina ahaleginak bikoiztu ez daitezenez, eta koherentzia bermatu dadin, ikuskatzeko programa hori Aiako Arauen ingurumena zaintzeko programan txerta daiteke, programa hau Aldaketatik etorriko diren eragin eta gorabehera berrietara egokituta.

Ikuskatzeko programa, edozein kasutan ere, ingurumenaren kalitatea zainduko dela bermatzea izan behar du helburu, eta aldi berean, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioan proposatutako neurri babesgarriak eta konpentsagarriak beteko direla ziurtatzea.

#### **5.8.– Laburpena**

Laburpen agiri bat egin beharko da, 183/2003 Dekretuaren eranskinetako 8. apartatuan ezarritakoari jarraituz. Agiri horretan, aurreko puntuetan jasotako informazio guztia eman beharko da jakitera, era zehatzean eta jendeak erraz ulertzeko moduan. Era berean, agirian dokumentazio grafikoa sartzea gomendatzen dugu, jendeak informazio zehatzagoa jaso dezan.

#### **5.9.- Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena**

Hautabide desberdinen bideragarritasun ekonomikoari eta Plan Berezia aplikatzeak sor ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo arintzera bideratutako neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena aurkeztuko da.

### **6. INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO MODUAK**

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. eta 10. artikuluetan agindutakoa betez, informazioa jasotzeko eta kontsulta egiteko moduei dagokienez, Aiako Udalak honako jarduketak burutuko ditu:

- a) Eragindako herri-administrazioei eta interesa duen publikoari kontsulta egingo die, Plan Bereziaren lehen agiriaren bitartez eta Planari dagokion ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlanaren bitartez.
- b) Planaren lehen agiria eta dagokion ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana jendaurreko informazioan jarriko da, aldizkari ofizialean iragarkia argitaratuta. Gutxienez 45 egun egongo dira, agiriak aztertzeko eta oharrak egiteko.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira eraginpeko herri-erakundetzat eta interesa duen publikotzat: erreferentziako agiri hau idazterakoan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultatutako administrazioak eta erakundeak (agiri honetako 2. atala), eta udalak identifika litzakeen herri-mailako erakundeak (auzotarren elkarteak, herritarren foroak, eta beste erakunde batzuk).





## **7. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AURRETIAZKO TXOSTENA ESKATZEA**

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoa betez, Plan Berezia onartu aurretik, Aiako Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar dio Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Aurretiazko Txostena egin dezan, eta eskaerari erantsi behar dizkio Planaren lehen agiriaren eskaera, eta ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterketarena, erreferentziako agiri honetako 3. atalean zehaztutako edukia duena.

Donostia, 2011ko ekainaren

**INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,**

**Izp.: JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA**